

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Garapen Ekonomikoak 14 milioi euro inbertitu ditu industria arloko ETEetan inbertitzeko laguntzetan

Ekoizpen-inbertsioko proiektuetarako dira, posizio lehiakorra hobetzeko

Ostirala, 2017.eko abuztuak 25

Garapen Ekonomikorako Departamentuak 14 milioi euro bideratuko ditu, FEDER funtsekin batera finantzatutakoak, industria arloko ETEetan inbertitzeko [laguntzetan](#), ekoizpen-inbertsioko proiektuak egiteko, haien posizio lehiakorra hobetzeko.



Zehazki, laguntza horien helburua da industria-sektoreak Foru Komunitateko ekoizpen-egituraren barruan duen pisua sustatzea, hazkunde ekonomikorako ekoizpenean eta komertzializazioan arreta duten inbertsioei lagunduz, produktu eta merkatuak, prozesu berriak eta teknologiak dibertsifikatuz eta kostuak murriztuz.

Horrela jasotzen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO), gaur, abuztuak 15, argitaratu den Ekonomia, Enpresa eta Lan Politikako zuzendari orokorraren [ebazpenean](#). Eskerak aurkezteko epea bihar, abuztuak 26, hasi eta azaroaren 30ean amaituko da.

Laguntza horiek, [2020 Nafarroako Industria Planaren](#) helburuen barruan kokatzen dira. Horrekin, Foru Gobernuaren helburua da enplegua % 10 handitzea industria-sektorean. Horrek, eskualdeko ekonomiaren % 33,5 ekar lezake, gaur egun ordezkutzen duen balio erantsi gordinaren % 31,68aren alde ia puntu eta erdi bat gehiago. Horrez gain, industria-enpresen kopuruak behera egin lezake, gaur egungo 3.800etik 4.000 arte; baita bere tamaina ere, gaur egun, ia % 95 enpresa txiki edo mikroETEak direlako, batez beste 17 langilerekin.

Enpresa eta proiektu onuradunak

Diru-laguntza horiek eska ditzaketen enpresak manufaktura-industriak dira, hondakinak tratatzen eta kentzen dituztenak, eta informazio eta komunikazio jarduerak garatzen dituztenak; baita ingeniari-tza, ikerketa eta garapeneko garraio-zerbitzuak egiten dituztenak ere, eta diseinu espezializatuko jarduerenak ere, besteak beste.

Diruz lagunduko dira aktibo material edo ez-materialetan egindako

inbertsio-proiektuak, haien helburua establezimendu berri bat sortzea, establezimendu bat handitzea, ekoizpena dibertsifikatzea eta ekoizpen-prozesu orokorra funtsean aldatzea bada helburua. Eskaerak ebaluatzeko eta laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko irizpideen artean, fabrikazio aurreratuko sistemetan egindako inbertsioaren ehunekoa (4.0 industria) eta berdintasun-planak egotea kontuan hartuko da.

Proiektuak laguntza-eskaeraren dataren eta 2019ko martxoaren 31 artean gauzatu beharko dira.